

Guda - Jostailuak debekatu ditzagun

Oraindik etzazu joan polbora-usaia, Alicanta'ko lbi errian gertatu dan zorritxara dala-ta... Gertara onek bi esan gai berriitu dute gure artean; bi esan-gai zaarrak eta gure irakurleentzat ezguznak.

Aurrena, anelako zorritxarak galeratzeko daukagun eginbearra da. Lan-gileak bere eifteen, ezta onelako aririkurik izan bear. Ori gizatuesunak eskatzen du. Ta beti ardura aundia jarri bear ba-da, aundia-goa bearko du, su-gai eta lortu ditezken galekin.

Bigarren esan-gaia, gerra-jostailuak ematen dituge. Gure gizartearen ugari bal-tira onelako jostailuak, eta arretarik gabe jaritzen ditugu, ala ere, aurren eskuetan.

Eztegu gertatu dan orretan sudurrik sartu nai; ba-dira ortan ari diranak, eta bere lekuan eta sasoiari emango dute beren azter-lanen erabakia. Nolan, orrela estanda egin dutean, izango zan tarteen arretarik-eza zer-baiten. Alakoa izan balta jende erukarriaren artean sortu duan triskantza.

Ainbeste biziren ezantzipidea zutenentzat, oargari joango da gerta-tu dan ezbearra. Guzian artean alegiñak egin bearko ditugu, orrelakorik gure artean berriitu ez dedin. Pentsa dezagun, gaifera, onelako ler-galekin egindako trasteak, nolako arriskua sortu dezakeeten gure aurrei.

Garbi dago, berez, su-izkilla ta onelako gerrate-trasnak gure aurren eskuetatik urrutiratu egin bear ditugula. Negargarria izango litzake polbora aur-eskutan lertzea. Ainbat txarago gure aurrak arma ta indarkeri-otura txikitatik beren jostaketan artze.

Orregatik zorrotz eskatzen degu, debeka ditzatela gerrate-jostailuak gure aurren artetik onelako izkillusu kenduz betiko. Ezta jostailu oietatik sortuko gure gizarte ta gazte ta aurren aurrerapenik. Ez, noski.

G O R O S T I D I

Don Juan Gorostidi, Donostiko Orfeoi pamatuaren zuzendari arglari, itz batzuek zor diktatela pentzaten det. Zorra bor beti. Ordaindu egin bear.

Biar bada itz abek berandu xamar agertzeko arrix-koa dute, bañan irakurleak jakin beza Gorostidi ildako astean bertan idatziaik daudela.

Gorostidi nere laguna zan. Diputaziyuak eta Gipuz-koako Kaja Aorroak eratsen dituen radio ofisioetan gurekin lana egifia. Berak, Gorostidik lagundu ziran ra-dio itzaldieri bear zutan butzakada ematen.

Gerra ondoran, amar edo amabi urte pasa ta, gu asi gifian euskera lrratsaloekin. Egia esen bearrean naiz. Roke de Aranbarri jaunari, diputatu zegola goga-ratu zitzaizkion radio emisioa oiek. Bera ausartu zan inor atrebizten ez zanian.

Diputazio eta Gipuzkoako Kaja Aorroren emisioaren itzalean asi ziran beste asko. Guk balmen ori baldin bagenduan, besteak ere bazutela balmen ori izateko eskubidea. Oker zebiltzala ezin esan.

Zoritxarrez gure itzaldiak akats bat zuten. Bildurra-ren akatsa. Gu asi bal gifian bideak urratzen.

Auxe zan akatsa: Baserritarrentzat egiten litzaldiak, eta erderarentzat toki golegi. Pausuak neurtu bearraren lanak. ¡Bildurra!

Euskerari oso-osotan toki egiteko anparoa nai eta anparu ori Gorostidi musikalarri ospetsuan arkitu ge-nuan bere garalean. Eta ez ori bakarrik. Balta gurekin Donostiko radiora makifibat aldzid etorri ere.

Geroztik Diputazio eta Kaja Aorroko emisioak, oso-osotan euskeraz egiten ditugu.

Ez du izan Gorostidi gure adixkideak zuerte aundi-rik. Jubilazioaren liliyuorrekini bizi zan. Balta jubilazioa kontsegitu ere, baiño askotan gertatzen dana. Ainbeste urtean lan egindako gizonari, deskanteuak eraso egiten.

Lanetan otutakoari, deskantsuak eriotza dakarkio as-kotan.

Asuntziyu bezperan eman zuan gure Jainko onak bere itzal gozora. Makifibat aldzid Ama Birjinari kan-tatu zion, edo Orfeiko kantuak zuzendu zizkion Aaum-tziyu bezperan.

Gorostidik ezin zitekean egun oberik arkitu gure Jaungoikagana josteko. Nolako bizitza alako eriotza, esan oi da, itz abek obeto ezin Don Juan Gorostidren-tzat.

Euskalerriko musikak asko eta asko zor dio. Ale-gindun zan gure abestiak zabaltzen. Makifibat aldzid en-tzuten dira radioz euskerazko kantak, Donostiko Or-feolak, Gorostidi buru dala, zabaldua.

Lagun asko eta asko agertu zitzaizkion Gorostiduru bere liletan. Gutxitan ikual degu gure eliz-katedrala orrenbeste jendetzakin.

Ondo merezitzako lileta ospetsuak. Lagundu dalgula guri dagon tokitik.

JOSE DE ARTECHE

EUSKERAZKO LIBURUEN ZABALKUNDE BEARRA

Agirian dago euskerazko liburuen zabalkundetik oza. Balta ere liburu berrien berri emaren erakunderik eza. Eta zabalkunde oza izango bada bearezko dago berri emateak eratu bearra.

Z. ARGIA'k, 283-gerren zenbakian bere editorealean zionez kataloga-rrak gu baiño askozaz aurrerago di-jozela, izanen 700 liburu berri ar-gitaratuz.

Gure burugabekeriak alde askota-tik datoz. Gure sulkeriak gelagotik noski. Eta euskerazko asteroko bat ari zaigu galdexka la euskeraz ur-tean zombat liburu argitaratzen di-ran. Emen baditugu olako erakunde-tikako utsak, guztioz pentsatzen bal degu norbalten ardurazkoa izan bear dala euskerazko gauzen antolatu-zina, baiña gutxitan pentsatzen degu, bada ez bada, nopere ardurapean euskeraren sailletako zerbait ar-tzea.

Eeste baterako, «Tele-Estel»-ek inoiz ez luke galdetuko katalogi li-buruen argitalpena zombat izan di-tzekin. Bere orrialdeetan txoko be-berri bat dutelako argitaratzen diran liburu guztien alpinema egingo duana. Ori eskerrak, Instituto Na-cional del Libro Español'ek igaz bu-rotu zuan katalogi liburuen katalogo edur bat: **Libros en catala**, urten, Barcelona'n, argitalpen berri bat izan duena. Gaifera, aientzat, katalan liburu mintzantzean, ez da sar-zen gazteferez idatzitakorik.

Gure artean zerbit arduratzen di-ra «Egan» eta «Jaunaren deia», bai-ña ez dituzte liburu guztiak ipatzen, ezta gutxiagorik ere. Gaifera, libu-ruak zabalkunde on bat izango ba-dute, alpinema egingo duan aldzid-kariak berak ere zabalkunde aundia bear du. Onegaitik, ZERUKO ARGIA bera izango litzaguke aukerakoena.

Azken bost urte auetan, nere ka-buz eraman dedan kontroletik, au arkitzen dut argitaratu diran liburu berrieri buruz, liburuak ere tar-tean dirala. Guztien izenak ematea lan luzea eta aspergarria litzake eta numeru agertuko det. Au da:

| Urtea | euskerazko liburu berriak | berri argitaldu-tako euskerazko liburu zaarrak | Itzulpenak | Guztiz |
|-------|---------------------------|--|------------|--------|
| 1963 | 10 | 7 | 7 | 24 |
| 1964 | 9 | 9 | 3 | 21 |
| 1965 | 21 | 7 | 5 | 33 |
| 1966 | 29 | 8 | 6 | 33 |
| 1967 | 27 | 3 | 8 | 38 |

Uste dut tituluren bat edo beste falta ditzakeela. Beraz, segurantz osoarekin argitaratuak, 1963-an 24 dira. Euskerazko literaturaren kontdaran lenengo aldzid litzan da lilean bi li-buru argitaratzen. Eta 1967-an lilean itx liburutik igarotzen da.

1963-an, Instituto Nacional del Li-bro Español'ek ekarrenez, katalanez iurreundik gora argitaratu ziran, gal-legoz sei eta euskeraz bat bakarra. Orrek bultzatu ninduan urte artako azterketa egitera eta geroztikoen kontua eramatera. Eta nere bizka-rrera orrenbeste lan ez banu, pozik eman izango nuan argitaratzen diran-berria. Au da amateuzkimoaren ondorena, denbora libre guztiak ar-tuta izatea ta bizi bearraren neuri-riak gelago eskeifi aal izatea ga-leratzea.

Gauza asko ditugu orrela, norek egingo duanari begira. Orregaitik, gure aldzikariren bat ez badiozu profesionalismo bideetik, gure literatu-rik elbarriturik litzango du. Euskel-tzale dirala dioten asmok tabernan eta fubolkerian alperrik gatzen du-ten denboratik edo eskeintzen ez badute beintzat.

Editorial berean dator munduko lidaizlerik alpatuenen zerrenda bat, gaurko idazleena, noski. Katalanera itzuliak izan omen dira. Idazle ospetsu oietariko asko, gutxiak jakin-gu dute euskerara ere itzuliak dira-la, asko argitara gabeak, beste ba-tzuek aldzikaristan zatika emanak eta gutxi batzuek liburuetan jasoak. Ala arkitu ditut neronek osatu de-dan oraingo auskal idazleen katalo-guan, Andreiev, Baroja, Bergson, Brecht, Camus, Casona, Dürrenmatt, Frisch, García Lorca, Hemingway, Ibsen, Ionesco, J. R. Jiménez, José Cela, Lissner, Mérimée, Miller, Moberg, Munro, Pedrolo, Poe, Pon-cela, Priestley, Qolst, Saint-Exupéry, Salvat, Segarra, Simonon, Tagore, Tolstoy, Wallace, Wallay, Weiser, eta abar. Eta klasikoetarik gelago noski. Itzulpen oien istorioak, zelan argitaratu diran eta zergaitik argita-ratu diran, artikulu aparteko bat merezi du.

Itzaultzailleak argitaratzaillae bear du; argitaratzaillae zabalkunde aundi-agoa; eta zabalkundak ongi era-tutako propaganda zeat bat. «Tele-estel» 100.000 arpedidunera urbiltzen da. Gure asterokoak zen-batera? Matalanen mintzaira zaba-

lagoa da, ta orrez galñera, beren erakundeak obeto antolatuak. «Te-le-estel»-i, aldzikari bezala ezar-etzaloz falta, ta ortikakoa du orra-zoiatariko bat arpedidun ugari izate-ko. Eta, «Tele-estel»-ek, utsik egin gabe, katalanez argitaratzen diran liburu guztien berri ematen du.

Euskerazko liburu guztien berri emango balitz, salketa gelago izan-gu genuke, eta salketak berakin de-rik argitalpenen ugaltzea. Liburuen berriak ematea zabalkunde aundie-na duten aldzikariren egitekoa da. Liburuen berri emateko ezta bear kritikarik, apamen utsa balzik. Au da, erreseña utsi-utsiki. Ta apamen zeat batek baldintza soil auek eskatzen ditu: liburuaren izena, egil-learen izena, luze ta zabalaren neuri-ria, zombat orrialdekoa dan, argita-ratu duen etxearen izena, argitara-tu dan erri edo urriaren izena, argita-lenaren urtea, eta salneurria. Azkenik, fitxa orren azpikaldean, libu-ruak duan gaia zer dan adieraziz le-rru labur batzuek. Besterik ez, Argi-bide oiek aski dira irakurleak jakin-erren gain utzeko. Kritikak geroxo uz-ten dira. Bakotzak bere gogoko edo iduriko aburua egin dezakeenez, ez da koment berri emate ortan litzel-ekin naustzerrik.

Gure artean, bete bear au, zeinek obeto ZERUKO ARGIA bezalako al-dizkari batek baiño?

Argitaratzaillerei delak egin zait-kiela atezatzen dituzten liburu be-riak balteko, alpinema egingo zaitkiela ta? Axolagabatasuna litz-ake uste orretan lo egotea. Bifla joan bear da lendabizi. Liburu berrien lileroko txoko bat jarri, eta ardura-dun batek, utsik egiteko, argitalzen diran liburu guztien berria eman. Ite-rririk berezienak errez arkitu ditez-ke: «Kuliska Sorta», «Auspoa», «Eliz-atarian», «Goiztiri», «Aña-mendi», «San Antongo katekesisa», «Hegosa», «Gure Herrita», ta abar. Eta partikularreri daia. Liburuen txo-ko orrek bere litzala duenian, inor arduratu gabe, argitaratzaillae urak izango dira inor baiño ardura ta arreta gelagorekin artuko dute-nak. Ori egiten ez degun artean be-ti begi-itsuan ibiliko gara.

Orrela jokatu zuan katalanen «Te-le-estel»-ek. Baiña bada beste gauza bat ere ondo gogoon artu bearez-koa, ta au da: ez naastu erderaz ida-tzita dauden liburuak lotentzat ba-

Jubilauen drama

XABIER GEREÑO

Modan dago gazteen prolemak erabiltea, ta ondo egifia dago, baña nire ustez zarrak be badaukez euren prolemak, eta egoki da eurak be erabi-ltea.

Illa azken onelatan inflasioa etorri da barrero. Gauzen prezioak asko lgon dira ta esaten da estebilisasioa etorriko dela barrero. Dana dala, arri-xuan dagoz Desarroloko Plana ta turismoa. Bizitzak geyago igoten badau, turistak beste bide batzuk artuko dabaz, eta eurentzat egin diran otelak eta etxeak, eta turismoari begira sortu dirazan milika pertsonentzat egoki-bi-de barriak ezartarako eztabe belioko.

Bizitza galestia-go iminten danean, jornalak eta soldatak igoten dira, baña ez jubilauen pensioak. Eurentzat etzagoz konbenloak. Esan bear da, urte azken onelako aurrerapenak, zarrak orrsindu dabazela. Aurrerapenak, bizitza lgotea dakar, eta dana lgon dan artean, pensioak geldirik egon dira.

Guzurra dirudi ogelgarren gizaldian, estadu kapitalistetan jesoten da-na, zarrak eta gaixoakaz. Eurak zaintzako seniderik eztaukean zan eta gai-xoak, karidade eske joan bear dira asilo ta gaxotegietara. Baña gizar-teen, soziedadean, parte diran zar eta gixo orreik eztauke zergaitik karidade es-ke libli, bearrak euren ardura artea justizia danean.

Zar eta gaixo orreik, gazte ta osasuntsu ziranean, gizar-teari eskeñi eu-tsen euren lana ta indarra, ta justizialakoa da, gizar-te orren buru dan krista-liko euren ardura artea, baña inoiz bez karidade antzean. Karidadea estia-litu birtute ona da, justiziarren gaifean eskeintzen danean, baña ez bere ize-naren atzean guzurra ta egoismoa dagonean.

Zarrak eta gaixoak, euren lanak eta eginkizunak ltxi bear dabenezan, pensio in on bat artu bear dabe, ta bizitza igoten danean, pensio orreik gora lgon bear dira. Zuzentasunean egin gura badogu gizar-tea, zarrak eta gaixoak errespetau bear doguz, ez litzaz, egitez. Eta egitea da bear daben dirua emotea. Gaurko munduan arpegi asko dagoz karekaz estalduek, guzurra da leku askotan agintari. Morala faltsu ta guzurrokoa dago leku askotan. ¡Zombat merkadar faltsu astindu bearko ziran, orain ogei gizaldi Kristo'k egin eban moduan!

Eta ori egiten dan bitartean, jubilauen drama aurrera doa. Eurak, euren mixeriagaz, orraindutan dabe aberats alper askoren lujoa.

JUAN SAN MARTIN

dira beste toki batzuek erderaz; edo beintzat inoiz euskal literaturaren-tzako garrantzi aundioa edo izan eguzik. Ondo bereiztu bear ditugun gauzak dira euskerazko literatura eta erderatikako euskeltzalekeria. Erderaz euskeraren alde idatzi dau-den liburuak ditugu kaltegarritzoko-enak, euskerarekin interesatu bear litzazken irakurleak kentzen dituzte-

lako. Beraz, kontuz! gerrua ontzitik kanpora egiten ari diranekin. Euskerazko liburuak ugalduz joango badira ez eman tokirik er-deraz idatzitakoari. Ainbat gutxiago euskeltzaleatasunez badatoz, Fedak eginkizun bear du, eta euskeltzale-tasunak euskerarekin.



BI ALDIZ ONA
BIOTER'EK babestua
VELCIA, S. A.

Pontegillie:

TUDELAN: Apartado 51.

Urrut. 820.812 ta 820.816

NANCLARES (Arabal):

Cerretera General Vitoria-Miranda
Km. 12 - Urrut. 6

Zeruko Argia

Zuzendaria:
ANTONIO IURRIA ASTIZARAN

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22. Telf. 28666

ARPIDE-SARIA:
Urtekoa 190 Ptas.
Atzerria 285 »

Aidez artu nai bada, galdetu.